

HIZKUNTZEN ERABILERA NEURKETA EREMU INFORMALETAN



2022ko urria

EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA

Unibertsoa: Kurutziaga ikastolako eremu informaletan (sarrera-irteerak eta jolasaldiak) entzun daitezkeen ikasleen arteko elkarriztak.

Lagina: behatu diren **2342 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **6989 solaskidek** osatu dute lagina.

Aztertu den ikasle-kopurua (968 ikasle HH3tik DBH4ra) baino lagin handiagoa jaso da (6989 solaskide), kontuan hartu behar da solaskide bera behin baino gehiagotan behatua izan daitekeela.


Akats-tartea: +/- %2,03koa da elkarrizketetan lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza mailan.¹

Laginarten osaketa sexuaren arabera

	HH	%	LH	%	DBH	%
Neskak	1141	50,87	2008	54,97	607	50,54
Mutilak	1102	49,13	1645	45,03	594	49,46
Guztira	2243	100	3653	100	1201	100

¹ Erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria. Akats-tartea kalkulatzeko, bi datu erabili dira: neurketan behatutako elkarrizketa-kopurua eta udalerriko ezagutza-datuak (hiztunak eta elebidunen proportzioa). Ikus "Laginaren kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>


Laginaren osaketa sexuaren arabera



Laginarren osaketa adinaren arabera

Aztertutako lagina guztira etapaka:		%
HH	2243	31,60%
LH	3653	51,47%
DBH	1201	16,92%
Guztira	7097	100,00%


Aztertutako lagina guztira etapaka




Aztertutako lagina guztira etapaka:

Behatutako elkarrizketak		%
HH	770	32,88%
LH	1179	50,34%
DBH	393	16,78%
Guztira	2342	100,00%

Behatutako elkarrizketak %tan



Behatutako populazioa guztira		%
HH	210	21,69%
LH	451	46,59%
DBH	307	31,71%
Guztira	968	100,00%




DBHko ikasle gutxiago behatu dira proportzionalki, ikastolan orotara direnak baino (%16 lagina, %31 populazioa). Beste bi etapetan behatutako lagina eta populazioaren arteko proportzionaltasunak hurbilago daude (HH %31 lagina, %21 populazioa; LH %51 lagina; %46 populazioa).

HIZKUNTZEN ERABILERA

Datu orokorra (2022ko urria)

Kurutziaga ikastolako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 7 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %68,6). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %31,4).


Hizkuntzen erabilera KURUTZIAGA IKASTOLAKo ikasleen artean



HIZKUNTZEN ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA

Erabilera, sexuaren arabera


	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	2903	77,29%	853	22,71%
Mutilak	2088	62,50%	1253	37,50%



Bi taldeen artean ia hamabost puntuko aldea dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da orokorrean.

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
HH	1819	81,10%	424	18,90%
LH	2659	69,43%	1171	30,57%
DBH	513	42,71%	688	57,29%

Ikus daitekeen bezala, adinean aurrera egin ahala, euskararen erabilera apaltzen doa. DBHko erabilera-datuak esanguratsuak dira, euskararen erabilerak ez du % 50eko langa gainditzen.

DATUAK ETAPAKA


Haur Hezkuntza

Datu orokorra

Haur Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 8 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %81,1). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %18,90).

Euskararen erabilera HHko ikasleen artean		
Euskaraz	1819	81,10%
Gaztelania	424	18,90%

Hizkuntzen erabilera HHko ikasleen artean




Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean ia zortzi puntuko aldea dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da.

HHko ikasleen hizkuntzen erabilera sexuaren arabera:		Euskaraz	Gaztelaniaz
Neskak	967	84,75%	15,25%
Mutilak	852	77,31%	22,91%

Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera




Lehen Hezkuntza

Datu orokorra

Lehen Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 7 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %72,79). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %32,06).

Euskararen erabilera LHko ikasleen artean		
Euskaraz	2659	72,79%
Gaztelaniaz	1171	32,06%

Hizkuntzen erabilera Hko ikasleen artean




Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean **hogei puntuko aldea** dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da.

LHko ikasleen euskararen erabilera sexuaren arabera:				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	1594	79,38%	414	20,62%
Mutilak	1065	58,71%	749	41,29%


Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera



Erabilera, adinaren arabera

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera		
	Euskaraz	Gaztelaniaz
1. zikloa	81,22%	18,78%
2. zikloa	71,67%	28,33%
3. zikloa	60,56%	39,44%

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Ikus daitekeen bezala, adinean aurrera egin ahala, euskararen erabilera apaltzen doa.


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Datu orokorra

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eremu informaletan, behatutako 10 ikasleetatik 4 euskarazko elkarrizketetan ari ziren (zehazki, %42,71). Gainerakoak gaztelaniazko elkarrizketetan (zehazki %57,29).

Euskararen erabilera DBHko ikasleen artean		
Euskaraz	513	42,71%
Gaztelaniaz	688	57,29%

Hizkuntzen erabilera DBHko ikasleen artean




Erabilera, sexuaren arabera

Bi taldeen artean **ia hogeita hamar puntuko aldea** dago, nesken artean euskara gehiago erabiltzen da. Mutilen artean, gutxiengoa dira euskaraz ematen diren elkarriketak.

	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
Neskak	342	56,34%	265	43,66%
Mutilak	171	28,79%	423	71,21%


Hizkuntzen erabilera, sexuaren arabera



Erabilera, adinaren arabera

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera				
	Euskaraz	%	Gaztelaniaz	%
1. zikloa	180	32,66%	371	67,33%
2. zikloa	333	51,23%	317	48,77%

Hizkuntzen erabilera, adinaren arabera



Beste bi etapetan ikusi dugun joera aldatzen edo apurtzen da DBHko ikasleen artean: euskararen erabilera handiagoa da ikasle nagusien artean, ia hoguei puntuko aldearekin.